

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun. Bezero-talde bat edo hainbat egon daitezke. Beren ezaugarri komunetan oinarrituta taldekatu behar ditugu, beren beharrak hobeto asetzeko. Merkatu mota ezberdinak daude, bezeroen segmentazioaren arabera.

Gure proiekturaren xede- bezeroa gaixotasun kardiobaskularrak dituzten indibiduoak dira. Hori dela eta, produktuaren merkatua nitxo da, bezero oso zehatzak edo berezituak ditugulako, hau da, bezero guztiek osasun egoera komunak dituzte baina beste ezaugarriak guztiz ezberdinak.

Honela laburbildu daitezke

kolektibo horren ezaugarriak: - Gaixotasun kardiobaskularrak dituzte  
- Bere osasun egoerari buruzko informazioa errazago eta xumeago eskuratu nahi dute.

Bezeroen kantitateari dagokionez, soilik Espainian bi milioi pertsona baino gehiago daude bihotzarekin lotutako gaixotasunak eta patologia dituztenak. Kolektibo hau osatzen duten gizabanakoak adin ezberdinekoak dira eta egoera ekonomiko ezberdinetakoak.

<https://fundaciondelcorazon.com/blog-impulso-vital/3264-las-cifras-de-la-enfermedad-cardiovascular.html>

Aipatzekoa da gaixotasun kardiobaskularrak heriotza-kausa nagusia izaten jarraitzen duela heriotza guztien % 29,66 izanez.

<https://secardiologia.es/comunicacion/notas-de-prensa/notas-de-prensa-sec/7266-la-enfermedad-cardiovascular-encabeza-la-mortalidad-en-espa%C3%B1a>. Ehuneko horren erdia baino gehiago emakumeak izaten dira.

Beste osasun arazoak dituzten pertsonak ere erabili dezakete gure eskumuturrekoa. Adibidez, diabetesa edo epilepsia duten pertsonentzako interesgarria izan daiteke, larrialdi baten aurrean tresna erabilgarria bait da. Honekin, gure bezeroen kantitatea nabarmenki handituko da.

Bestetik, pertsona helduak ere gure bezero talde garrantzitsu bat izan daitezke, izan ere, beraien osasun egoerak pertsona gazteena baino arreta gehiago esakatzen bait du. Talde honek gure produktuaren informazioa eskuratzeko iragarki kanpainia bat martxan jarriko dugu.